

II ALTZAKO
DAIAK 24



SAN MARTZANAK

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN FESTAK

Ekainak 28-Uztailak 2

EKAINAK 21, OSTIRALA

18:30

Gomazko eta larruzko Paletako FINALAK. Ondoren Sari banaketa.

21:30

Altzatarra K.E.-ren egoitzan, San Martzial pilota txapelketa eta mus txapelketaren partaideekin eta nahi duten altzatarrekin AFARIA.

EKAINAK 22, LARUNBATA

9:00

Altzako baserrietan zehar, 2024ko Jai Egitarauaren eskaintza, Donostiako Musika Eskolako trikitilariak lagundurik.

EKAINAK 28, OSTIRALA

17:30

Dantza modernoa. Pausokdance dantza taldearen eskutik. Jarraian, euskal dantza, Herri Ametsa dantza taldearen emanaldia.

18:30

Jaiei hasiera emango die Mistyc konpartsak. Dantza ez da faltako. Ondoren, berreskuratutako ohitura zaharrari eutsiz Agintarien soka-dantza egingo dute Ekialdeko barrutiko ordezkariak San Martzial plazan.

19:00

Brindisa Altzatar berrien alde. 2023an eta 2024an Altzara etorri diren Altzatar berriei ongi etorria egin zaie. ONGI ETORRI ALTZARA!
Jarraian, KANTU JIRA Altza kantuzek gidatuta. Animatu elkarrekin abestera.

19:15

Emakumezkoen Gomazko paleta txapelketako finala.

20:00

BURUHANDIAK kaleetan zehar.
Altza Herria IV. pilota txapelketako finala.

20:30

Altzatarra K.E.-aren egoitzan AFARIA, danborradan parte hartuko dutenentzat eta altzatar guztientzat.

22:30

Altzako kaleetan zehar DANBORRADA, Pasai txarangarekin.

22:30

DJ BULL

00:00

San Martzial Plazan, Udaletxe aurrean, San Martzial ereserkia abestuko da, Pasai Taldea lagun, Danborradako partaide eta bertako auzotar guztiak lagundurik.

SAN MARTZIAL HIMNOA / SANMARTZIALI GOZOAK

Kanta deizkiogun gustoz Martziali gozoak

Saria emango digu gure Jaungoikoak

Zure bost ogiekin, zure bi arraiekin

Bost mila izan zuten mantenu zerekin

Hargatik zure ondoren dabilta gizonak

Kanta deizkiogun gustoz Martziali gozoak

Saria emango digu gure Jaungoikoak. (bis)

KANTA HERRIKOIA

Altzatarrak, Altzatarrak, gazte heldu edo zaharrak

Altzatarrak beti, beti, kasta onekoak

Altzatarrak, Altzatarrak gazte heldu edo zaharrak

Altzatarrak beti, beti, kasta onekoak.

Ondoren, DJ BULL-ek jarraituko du gauari erritmoa jartzen.

EKAINAK 29 -LARUNBATA - San Pedro eguna

11:00-14:00

PUZGARRIAK Altza ikastetxeko jolaslekuan.

12:00

Sevillana dantzak Plaza gorrian Altzako Alma, Corazón y Baile akademiaren eskutik.

12:00

GIZA PROBA desafia Altzako gazteen artean probalekuan.

13:00

PILOTA PARTIDA. TitinIII-Koka eta BengoetxeaVI-Goñill

14:30

HERRI BAZKARIA San Martzial plazan. Txartelak tabernetan salgai, aurretik hartu.

17:00

SHOW-TIME (Erroteta 7)ren dantza emanaldia Plaza gorrian.

17:30

Elektrobiuika ELEKTROTXXARANGA emanaldia kaleetan zehar.

19:30

BURUHANDIAK kaleetan zehar.

20:00

San Martzial Parrokian, ESLABA maisuaren SALBEA, lau ahotsetara eta organoarekin, Aita Sierra Abesbatzarekin eta Parrokiko Koruaren partaidetzarekin.

20:00

SALSA IKASTAROA Elena Ávila eta Ivan Bermejok gidatuta. Eta, ondoren, denok dantzara!

21:00

ARRA DJ-a Plaza gorrian Esmeralda tabernaren eskutik.

23:00

Itzal erromeria taldearen emanaldia.

00:00

ZEZEN-SUZKOA. / Jarraian, ITZAL erromeria taldea.

EKAINAK 30, IGANDEA, San Martzial eguna

9:00

DIANA Altzako kaleetan zehar Donostiako txistulari bandaren eskutik.

10:00

Auto klasikoen topaketa (+30) San Martzial plazan. Carrocerias Aldapa eta Berua Madonado-ren eskutik.

10:30

Minbiziaren aurkako ELKARTASUN AZOKA ASGINCERREN laguntzarekin Plaza gorrian.

11:00

San Martzial Parrokian, MEZA NAGUSIA Altzako Deun Gorenaren omenez. Abesbatzak abestuko du eta ondoren kontzertua.

11:30

Bolo jaurtiketa Udal bolatokian. Animatu eta parte hartu, sariak egongo dira irabazleentzat. Izen ematea 10:30-11:30.

12:30

Harri jasotzea eta aizkora.

17:00

Iñaki eta Beñat REVUELTA ANAIEN eta JESUS ETXEBESTEREN kantaldia.
Bizarrain Euskara Elkarateak lagunduta.

18:00

TIO TERONEN SEMEAK dantza eta umorea uztartzen dituen taldearen
Haurreskolari ikuskizun berria Kasares-Tomasene kultur etxearen eskutik.

19:00

Altzagainako XXVI. SAGARDO EGUNA. Jai Batzordeak antolaturik.

19:30

“ZUMBA” ASGINCER-en laguntzarekin, Plaza gorrian.

20:00

BURUHANDIAK kaleetan zehar.

20:30

LEE JUNIOR musikariaren emanaldia.

UZTAILAK 1, ASTELEHENA, Haurren eta jubilatuen eguna

11:30

TOKA txapelketa bazkideentzat NAO etxeak antolaturik.

12:00-14:00

Uretako puzgarriak Altzako igerilekuan. Aforoa dela eta, aurretik izena eman
behar da kiroldegian (ekainaren 24tik aurrera).

13:00

Patata-tortilla lehiaketa.

Postreen lehiaketa.

16:00

Haurrentzako MARRAZKI LEHIAKETA. LA MÁS KUKI-k antolatuta. Lehiaketaren
oinarriak egun batzuk lehenago argitaratuko dira
www.facebook.com/lamaskukidetalles web orrian.

16:30-18:30

Saskibaloia familian jolasak eta jaurtiketa lehiaketak Club ASKATUAKen
eskutik.

16:00-18:00

AURPEGI MARGOKETA Maider Ferreira profesionalarekin

17:00

- Haur jolasak San Martzial plazan. Etorri primeran pasako dugu eta!
- NAO etxean ospaturiko txapelketen SARI BANAKETA. Jarraian luntxa eta dantza bazkide eta lagunentzat.

18:00

- Errenteriako Egi-Luzeko baskulan hurrengo egunean idi probatan parte hartuko duten lau IDI BIKOTEEN PISAKETA egingo da, Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioko epaileen eta Foru Aldundiko al baitariaren aurrean.
- Frontenis torneoa al tzatar gazteentzat. Eman izena...Sari asko daude... Izen ematea 17:00etatik 17:30era.
- Apar festa. Ondoren, txokolate-jana haurrentzat. Nao Etxeko Estherren lankidetzarekin.

19:00

Potx magoaren ikuskizuna Plaza gorrian.

19:45

BURUHANDIAK kaleetan zehar.

20:00

Marrazki lehiaketako sari banaketa

20:30

Sardina-jana Nao Etxea tabernako ESTHER-en eskutik, Arabako Errioxako D.LUIS R. ardoaz lagundurik bizilagun eta bisitari guztientzat, VINOTEC ardo-etxeak babestuta.

UZTAILAK 2, ASTEARTEA, Santa Ixabel, Baserritarren eguna

10:00

San Martzial Parrokian MEZA NAGUSIA.

10:45

XXXII Sagardo lehiaketa honako sagardogileen partaidetzarekin: BARKAIZTEGI, LIZEAGA, GARTZIATEGI, OYARBIDE, PETRITEGI, ALTZUETA, OTSUA-ENEA, EULA eta AKARREGI. Ondoren, SARI BANAKETA egingo da.

12:00

NAO ETXEA elkartearen eskutik txistorra, gazta eta hirugihar ogitartekoak.

12:30

Udal probalekuan IDI-DEMAK. Aldez aurreko zozketaren ondoren, bi idi pare jardungo dira eguerdian eta beste bi arratsaldean.

Diru sariez gain, bikote irabazlearentzat sari berezia egongo da. Bikoteek diru-saria edo garaikurra jasotzeko, gutxienez 30 plaza egin beharko dituzte bi mila kiloko harriarekin.

Aurten honako hauek korrituko dute harria:

- 1- Jexux Mari Matxain- Matxain Aparola (Orereta).
- 2- Bixente Areta Lezetar- Mendigoitxi etxea (Eibar).
- 3- Mari Carmen Portu (Olatzar) -Iturmendi baserria (Lasarte-Oria)
- 4- Patxi Ilarreta- (Orereta).

13:00

Bertsolariak San Martzial plazan Jesus Mari Irazu eta Agin Laburu Gaijartzailea JOSEBA ALKIZA.

14:30

ANAITASUNEZKO BAZKARIA Altzatarra elkartean bertsolariek lagundurik.

18:00

Udal probalekuan IDI-DEMAK. Eguerdian tira ez duten idi-pareen txanda izango da.

Ondoren, goizean abesten aritutako bertsolariek azken saioa egingo dute.

Gora San Martzialak!




DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola



donostiakultura

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN **FESTAK**



Donostia kirola
SAN SEBASTIÁN

2024

ALTZA

Sanmartzialak

